

Kakute

San Inazioaren estatua

LOIOLA

Testua: **Sara Ibardin** Argazkiak: **Conny Beyreuther**



Izarraitzen magalean.

Loiolako Santutegia atzeko parke lasai eta zabaletik ikusita. Gainean,

Izarraitz eta, Azpeitira begira, Xoxoten (912 m.), San Inazioaren marmol-harrizko estatua handia.

1956an jarri zuten. Bilboko Aldatz-Gora mendi bazkunaren ideia izan omen zen, baina Azpeitiko Lagun

Onakekoek igo zuten materiala, mandoen gainean. Diseinua Jesus Torre eskultore tolosarrarena da.

Kokapena Xebe Peña mendizale tolosarrak aukeratu omen zuen.

Mila mendizale igo ziren inauguraziorako.

Xoxoteko tontorrean dagoen San Inazioaren estatua, «behintzat Azkoitiko partean ez jartzeko» eskatu omen zieten azpeitiarrek eskultura Izarraitzen jartzeko ideia izan zuten Bilboko Aldatz Gorakoei, Erlon eta Kakuten ere begiratzin ibili zirela ikusi zutenean. Xoxoteko tontorra aukeratu aurretik, ordea, bazirudien Kakuteko gainean jarriko zutela estatua, Azkoitiko lurretan, alegia. Iñiguez de Ciriano jesuitak horrela nahi zuela diote garaiko kronikek, baina «azkoitiarrek debozio gutxi» erakutsi omen zuten kontu honekin, eta azpeitiarrek laguntzarako zuten gogoia ikusita, Azpeitiko partean jarri zuten azkenean, hauen baldintzak errespetatuz.

Duela ia hirurogei urteko kontu hauek ez ziren bi herrien arteko liskar bakarrak izan San Inazioaren estatuen inguruan. Santutegiaren aurrealdean Azpeitira begira dagoen eskulturak ere makina bat hika-mika eta «gaueko ekintza» sortu zituen. Azpeitiarrek Azpeitira begira nahi zuten, eta azkoitiarrek Azkoitira begira. Gaez behin baino gehiagotan joan omen ziren bi herrietako «komandoak» estatuari buelta ematera. Azkenean, gaur dagoen moduan geratu zen, Azpeiti aldera begira. Loiola, bi herrien arteko mugan badago ere ia, Azpeitiko lurretan dago.

Aspaldiko kontu hauek hori besterik ez dira gaurko Loiolak nagusientzat eta langileentzat, kontu zaharrak. Garai bateko istorioak, azkoitiarren eta azpeitiarren artekoak bezala; bada oraindik mokoka aritzeko joera belaunaldi gazteen artean ere, baina elkarrekin «nahastan» goazen heinean ere goxatu egiten da harremana. Orain dela bizpahiru hamarkada gazteak Azpeitian elkartzin ziren bezala, gaur Azkoitirako joera handiago da. Garai batean Extremaduratik etorri baziren emigranteak, gaur Pakistanetik iristen dira, Azkoitian bereziki oso fenomeno demografiko eta sozial berezia sortuz. Beste hainbat eta hainbat lekutan bezala, krisiak ere ederki astindu ditu bailarako lantegiak eta familiak, egun azpeitiarrak estuagoa badabiltza ere, enpresa handienak itxi direlako eta herrian presentzia handia duen altzairuaren sektorean urte gogorak izaten ari direlako.

Bailara, bizitza eta errealtate sozioekonomikoa eta baita politikoa ere (herri bietan EH Bilduk du alkatetza orain) eraldatu diren bezalaxe, Loiolak Santutegian ere majo aldatu da dena, edo ia dena, eta 7K bertan izan da Loiolak errealtatea eta «etxe santuaren» barruko bizitza ezagutu asmoz. Ateak ireki dizkigute eta, txikitan bezala, kuriositate handiz sartu gara. Beste mundu bat? Ez hainbeste, ez garai batean bezala.

Itxuraz ez da gehiegi aldatu auzoa; santutegiko kulpak segurtasunezko altzairuzko «korporio» antzeko bat du (1992), kanpotik ekarritako zuhaitz zahar ederrekin hor jarraitzen dute, deabruak, haserre, egin omen zuten pitzadurak hor jarraitzen duen bezalaxe, baina aspaldi aireratu zen aita santuaren helikopteroa eta urteak dira trenik pasatzen ez dela azpitik, Urolakoa 1988an jubilatuz zutenetik. Gaur, geltoki zaharrean, noizbehinka, esku ixil bat ikus daiteke, edo mailu bat, erdi ezkutuan, leiho txikien atzean, besterik ez.

Eta santutegia ez da jada jesuitena, Aldundiarena baizik (1840tik).

Turistak eta erromesak bertaratzin dira oraindik; ez agian garai batean bezala, baina aita santu berria jesuita izateak mesede egin die eta bisitarien kopuruak gora egin du. Komentuetan eta antzekoetan gertatzen den antzera, ordea, barruko bizitza eta «inkilinoen» kopurua aldatu eta jaitsi egin dira. «Beste Loiola bat» da gaurkoa, errealtatera egokituta; jesuitak egoerara «egokitzen» onak izan dira betidanik.

Hartzen hasita ere, bailarako lurrik onenak hartu zituzten, San Inazioaren jaiotetxearen bueltan, eta batez ere, atzealdean, Azkoitira begira.

Familiako dorretxean 1491 hartan jaio zenetik, jakina, Loiolak paisaia bera ere ikaragarri aldatu da. Gero santu egingo zutena aldatu zen bezalaxe. Soldadu «harro eta hutsal» hark Jesusen Lagundia fundatuko zuten (lehenengo jesuita taldea Parisiko Sorbonan sortuko zen) eta bere

jaiotetxearen inguruan, jaiotetxea bera ezkututuz, tamalez (ikaragarri polita baita), egitura monumental eta erlijioso handia eraiki zuten. Proiektua Gian Lorenzo Berniniren ikasle zen Carlo Fontana arkitekto italiarrak egin zuen. Lehen harria 1689an jarri zuten, baina gerrak eta jesuiten kanporatzea zirela medio (1767an lehenengo aldiz), ikaragarri luzatu ziren lanak.

Ohikoa zen, garai hartan, «erlikia» edo «santu» kontsideratzen zen zerbaiten bueltan eraikitzea, gordetzeko. Gaur Loiolan diren jesuitek, Vatikanotik Loiolarak 2001ean etorri zen Aita Cabasesek (Felix Juan Cabases Radio Vaticanoko erredaktore buru izan zen) 7K-ri kontatu zion bezalaxe, harrotasunez baina penaz begiratzin diote santutegiaren horma lodiek ezkututzen duten harribitxiari, jaiotetxeari. Gaur, seguru asko, ez litzateke horrelakorik gertatuko, «etxe santua» denen begi bistan gertatuko litzateke, seguru asko, baina garai desberdinak ziren, jakina.

Izarraizko harrobi zaharreko harria erabili zuten eraikuntzarako. 600 harginek egin zuten lan bertan. Fontana arkitektoak arrano baten figura irudikatu

Loiola gaur
Garai batean, 250 jesuita bizi ziren santutegian.
Gaur berrogeita hamar bat dira, erdiak
aktiboan, elizkizunetan, bisiten harreran,
gogartetxearen kudeaketan edo liburutegi
eta artxiboan lanean.



Olatz Berasategi.
Loiolako santutegiko
Liburutegiko eta
Artxiboko zuzendari
nagusia da Olatz
Berasategi.



Barruko bizitza.
Elizkizunak, ikerketak...
bizitzarako gunea ere bada
Loiolako Santutegia. Behean,
sukaldea.



zuen, goitik begiratuta, bost patiorekin. Santutegia, hala ere, "Colegio Real" bezala jaio zen eta horrexegatik ageri da, fatxadan, eskaileren gainean, Austriarren garaiko armarrria, Borboiena alegia. Hor dago oraindik...

Bizilagun gutxiago gaur. Loiolatik jesuitak zortzi aldiz bidali edo kanporatu badituzte ere, hasiera hartatik hona milaka jesuita bizi izan dira santutegian. Garairik onenetan 250 bat jesuita izaten ziren bertan. Formakuntza etxea zen jesuitentzat, nobiziatua... Gaur egun ez dago horrelakorik. Eraikuntza handi honetako leiho eta gune dezente ikusten dira argirik gabe gauean, erdi hutsik. Azkeneko hamar edo hamabost urteotan 50 eta 70 artean mugitzen da santutegiko biztanle kopurua, Txema Vicente nagusiak edo Loiolako buruak adierazi zigunez.

Gaur, hogeita bost bat erretiratuta daude, batzuk gaixo, eta beste hainbeste lanean, gauza eta kontu ezberdinetan: elizkizunak, gogartetxearen kudeaketa, bisiten harrera, liburutegia, artxibo historikoa...

Lehen bizitza gehiago zegoen, elizkizun gehiago, inguruko elizei eta baselizei laguntza gehiago... «Asko jaitsi da hau guztia –aitortu zigun Vicentek–. Gaur hemen gaudenok askoz zentratuagoak gaude bertako lanetan, santutegiko kontuetan». Loiolako eremuak, jesuitak, galtzeagatik irratia bera ere galdu zuten (saldu behar izan zuten). Hegoaldera begira dagoen santutegiko hegoaren behealdean zuen irratia lokalak. Gaur itxita dago.

Galera handia izan zen beraientzat Loiola Irratiaren desagerpena edo salmenta, eta ez simbolikoki bakarrik, eskualdeko entzule askorentzat izan zen bezalaxe. Galera sentsazioa ez da desagertu.

Erlijosoen eta laikoaren arteko bidea. Gaur pertsonal edo langile laiko dezente dituzte Loiolan, emakumezkoak asko. Sakristau bezala, liburutegian, sarrean... «Jesuitak desberdinak dira», entzun genuen, zentzu positiboan, Loiolara egindako bisitetan, baita emakumeekiko duten jarreraren ere.

Garai bateko «Inazioaren bidea» gero eta konpartuagoa da, erlijiosoen eta laikoaren artean. Gune pastoral izaten jarraitzen baldin badu ere, gero eta gehiago dira inguruan dituzten laikoak.

Jesusen Konpainia bera, finean, eboluzionatzen ari da eta beraiek ere horrelaxe aitortzen dute. Neurri ba-



teraino, behinik behin. Laikoek formakuntza ikastaroak hartzen dituzte, konpainiaren nortasuna eta misioa ezagutu dezaten eta horrekin guztiarekin, inazioaren bidearekin eta abar, inplikaturatu senti daitezten: «Azken urteotan –dio Txema Vicentek– lan taldeko izpirituan irabazi egin dugu».

Jesuiten «obedientzia» eta diziplina ezagunak dira, bromatan «obedientzia militarra» ere aipatzen duten bako bako gehiago, San Inazio bera izan zena gogoratuz (soldadua, alegia). Baina hori errealitatearen parte bat besterik ez da: «Obedientzia bai, baina kreatibo», nabarmentzen du Txema Vicente Loiolako nagusiak. Eta orain, gero eta gehiago dituzten langile edo lankide

laikoak beste ikuspegi eta dinamika batzuk ari dira aipatzen. Konpainia bera aberasteko,

Vicenteren hitzetan. «Lan egiteko era berri bat da; aberastu egin gara, eta gainera, behar ditugu esku artean ditugun gauzak eta lana aurrera ateratzeko». Jesuitentzat ere bokazioen jaitzierak eragina izan du, baina hauek beste batzuk baino hobeki egokitzen ari direla esango genuke.


Europar oso nabarmena da jaitziera, eta Latinoamerikan eta Ameriketako Estatu Batuetan estankatu egin da orain arte zuten gorakada txikia; Afrikan, aldiz, bokazio gehiago dituzte. India da jesuiten beste gune historiko bat, baina han ere, beste leku batzuetan bezala, bertakoak dira testigua hartzen ari direnak, ez hemendik joandako misiolariak. Loiolatik makina bat gazte jesuita atera zen India aldera, esate baterako, orain dela bost edo sei hamarkada. Martin edo Mikel bezalako jesuita beteranoak barkuz joan ziren, bere lehenengo bidaian, Indiara, eta urteak eta urteak eman zituzten itzuli gabe. Kasu batzuetan, ezagutzen ez zituzten arrebak 18 urterekin besarkatu zituzten bueltan, lehenengo aldiz. Hangoak ere «desberdinak» direla esan genezake, beste pertsona kasta bat, gorriak eta bi pasatakoak baina lehenengo egunetik komunitateetan txertatuak; misioan, bai, baina bertako pobreenen ondoan: Sevasin, Dediapadako adibasiak eta beste leku askotan.

Asiako faktorea bitxia da, baita gaur egun ere. Txema Vicentek kontatu zigunez, esate baterako, ikaragarria da zenbat bisitari etortzen den Loiolara Hego Koreatik. Bisita gidatuen audioa hamasei hizkuntzatan dago, «Jesusen Konpainiak mundu osoan duen presentziaren ispilu», Aita Cabasesek esan zigunez.

LOIOLA



fatxada nagusia



behe solairua

Santutegiaren eraikuntza

Santutegiaren oinplanoa laukizuzena da, eliza biribila alde luzearen erdialdean kokatua. Elizaren aurrealdean, fatxadak planotik «ateratzen» den arkupea eta harmailadia ditu. Laukizuzenaren beste aldean jangela, jangelaurrea eta sukaldea daude, fatxadako planotik kanpo hauek ere.

«Etxe santua», hau da loiolatarren dorretxea, ia tenpluari itsatsita dago.

Kupula da, beharbada, aipagarriena: 20 metroko diametroa du eta 50 metroko altura (65 metro goiko linternarekin). 1992an sendotu egin behar izan zuten kupula, egiturazko arazoak aurkitu baitzizkioten. Loiolako basilikaren kupulak hasiera-hasieratik eman ditu arazoak.

Tenplua 1738an inauguratu zen; konstagratu, ordea, 1888an eta 1889an.

Kanpotik barrokoa da gehienbat, baina portikoan churriguerescoa agertzen hasten da eta, barrutik, basilika erabat churriguerescoa da, adornoz bete, kargatua. Egurra ageri den lekuetan, Libanoko zedroa (ate nagusietan) edo kaoba da (barruan).







**Txema
Vicente.**

Goian, Txema
Vicente, Loiolako
jesuiten komunitateko
arduradun nagusia. Aita
Cabases, eskuinean.

«Turismo erlijiosoa». Loiola jesuiten erdigune espirituala da, garrantzitsuena, baina ez da konpainiaren grabitate zentroa. Hala ere, aipatu bezala, mundu osotik iristen dira oraindik bisitariak. Mundu osoko jesuitak etortzen dira Urola bailarako bihotzera. Eta aita santu jesuita bat izendatu edo aukeratu zutenetik gehiago: %20 igo da bisita kopurua Loiolan Frantzisko aita santu denetik. Turismo erlijiosoa ez da eten, beraz, ez Loiolan behintzat, nahiz eta, orokorrean, garai bateko atzerritar presentzia sumatzen ez den orain. Irakurleak jakingo du, beharbada, Juan Pablo II.a Loiolan izan zela 1982an. Jendea erruz bildu zen atzeko parkean. Orain, berria «etxekoa» dela kontuan izanda, badute esperantza txiki bat: egunen batean Loiolan izango dela, berriro, aita santu bat.

Loiolan, «etxe santura» sartzen den bisitarien kopurua dute, bereziki, neurtuta, ez elizkizunetan biltzen den jendearena. San Inazioaren jaiotetxera 70.000 bisitari inguru sartu dira 2013an. Orain dela hiru urte 50.000 izan ziren. Dezente igo da, beraz, eta batez ere aita santuari «zor» zaiola uste dute bertako arduradunek. Loiolara, guztira, jende gehiago hurbilduko zen, seguru asko, denak ez baitziren igaroko adreilu gorritzko dorretxe ederrera. Jaiotetxeko bisita, dena dela, arrazoi erlijiosoengatik izan ala ez, gomendagarria da. Dorretxe bikaina da eta garai bateko nobleak nola bizi ziren kontatzen digu; bistan egongo balitz, bailarako ederrena izango litzateke seguru asko. Badira inguruan ere beste batzuk, baina ez hain ikusgarriak edota hain ongi zainduak, Azkoitiko Balda dorretxea, esate baterako (San Inazioaren ama hantxe bizi izan zen): dorretxea XII. amaieran edo XIII. mendearen hasieran eraiki zuten, baina Baldakoa ganboatarren aldeko leinurik garrantzitsuenetakoa zen eta XV. mendean gotorleku egiten zuen parte bota (erre) eta eraikuntza zibil bilakatu zuten oinaztarrek Zumarragako gudua irabazi ondoren. San Inazio, ordea, «oinaztarra» izan zen eta Nafarroako gaztelar konkistan parte hartu zuen soldadu gisa (larriki zauritua izan zen arte eta etxera itzuli eta, bi ebakuntza hantxe bertan egin ondoren, osatzen ari zela «konbertitu» zen arte).

Loiolako altxor ezkutatuak. Ezagunak diren kontuez gain, Loiolako Santutegiak altxor bat baino gehiago ezkutatzen ditu hormen barruan. Horietako bat da



1997an inauguratu zuten Liburutegia eta Artxiboa.

1500. urte aurreko liburuak eta XVI. mendetik XIX.enera artekoak daude bertan. Euskal Herriko eduki zahar gehien dituen liburutegia da Loiolakoa. Eta musikari buruzko liburutegia eta artxiboa ere badu, Nemesio Otaño aitaren artxiboa tartean (musikagile eta organo-jotzaile azkoitiarrak berak sortu zuen San Inazioaren martxa ospetsua).

132.000 lan inguru daude erregistratuta liburutegian. Horietatik 40.000 ale inguru 1900. urte aurrekoak. Artxiboan, berriz, 10.000tik gora. Majo beteta daude bere baldak. Kontsultarako eta ikerketarako zentro bikaina da eta mundu osotik hurbiltzen dira ikeritzaileak, noizbehinka, bertara. Ez da hagitz ezaguna,

hala ere, eta bere arduradunak duen zerbitzu izaera indartu nahian ari dira, nahi edo behar duenaren mesederako. Bada, gainera, berezitasun bat: santutegiaren eraikinak (etxe santua salbu) Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoak dira (desamortizazioa), baina liburutegiko eta artxiboko materiala bera jesuitena da.

Gainerantzean, leku lasaia da benetan santutegia barrutik... sukalde ingurua jatorduen garaian ezik. Ederki asko «zainduta» daude bertakoak alde horretatik. Atzeko parke zabala ere halakoa da, berez pribatua izan arren, paseatzeko eta lasai egoteko eta pentsatzeko aproposa da. 1948an erosi zituzten terreno horiek. Baratarako eta frutarako jarria zuten jesuitek, baina 1982an Juan Pablo II.a etorri zenean bisitarako egokitu egin zuten eta, harrez geroztik, lorategi moduan dago. Atzeko parkean agian ez daude santutegiaren aurrealdean dauden zuhaitz exotiko handiak, baina baditu beste kontu interesgarri batzuk, Oteizaren anaiak (Antonio Oteiza) eginiko eskultura, esate baterako. Kanposantua ere hortxe dute, mendi aldera (azkoitiar jesuita batek «inauguratu» zuen 1868an. Ordura arte barruan lurperatzen zituzten).

Aurrealdean dauden zuhaitz gehienak identifikatuta daude. «Jesuitak –horrelaxe adierazi zigun, harro, aita Cabasesek–, munduko herritarrak gara», eta horren ispilu dira Azpeitia aldera dauden zuhaitzak, mundu osotik ekarritakoak baitira.

Haxe da ba, laburbilduta, Loiola gaur egun, bertan bizi eta lan egiten dutenek kontatua. Izarraitz mendi-lerroaren magalean, Azpeitia eta Azkoitia artean, Jesusen Konpainiaren bihotzean.